

Umekiaren zelulek zer kalte egiten diote amaren osasunari?



UMEKIAREN eta amaren artean karenaren bidez oxigenoa eta elikagaiak trukutzen dira gehienbat, baina horiez gain umekiaren zelulak amaren gorputzean sartu eta hainbat lekutan kokatzen dira, hala nola azalean, biriketetan, bihotzean eta garunean, besteak beste.

Zientzialariak aspalditik dabil-tza zelula horiek amaren osasunean duten eragina ezagutu nahian. Orain arte ezin izan da

ezer frogatu erabat, baina ia ziurtzat ematen da amek onurak zein kalteak jasan ditzaketela umekien zelulen eraginez. Onuren multzoan hiru azpimarratu daitezke: bularretako esne ekoizpena hobetzea; zaurien edo ebakuntzen aurrean orbaintzea azkartzea; eta gorputzeko tenperaturaren erregulazioa hobetzea. Kalte nagusia, berriz, amaren immunitate-sistemari egindako eraso da. Horrek gaixotasun autoimmuneak sortzen ditu, estera-ko artritis erreumatoideak. Baliteke ere lupusak eta hainbat minbizik umearen eta amaren arteko harreman horrekin lotura izatea.

Gainera, haurdunaldi bat baino gehiagotik eratorritako umeki-zelulek elkarri eraso diezaioke, eta horrek eragina du amaren osasunean. ■

Bere burua instant batean osatzeko gai den materiala

MICHIGANEKO UNIBERTSITATEKO (AEB) eta NASAko ikerlariak sateliteetan eta abioietan agertzen diren zuloak estaltzeko gai den materiala sortu dute.

Material berria erretxina tankerakoa da, eta sandwich bat bezala kokatzen da, hau da, bi geruzaren artean. Horrela, geruzetan edozein arrazoirengatik sortutako zuloak ia berehala estaltzen ditu.

Ez da bere burua osatzen duen material bat asmatzen den lehen aldia. Desberdintasuna denboran datza: segundo gutxi batzuk nahikoa dira zuloa betetzeko. ■



Material berria batez ere sateliteetarako izango da egokia.

Hiru bilioi zuhaitz munduan

Yale Unibertsitateak (AEB) egindako azterketa baten arabera, hiru bilioi zuhaitz daude munduan, hau da, pertsonako 420, gutxi gorabehera. Duela 12.000 urte zeuden erdia dugu orain. Une honetako deforestazio abiadura urteko 10.000 milioi zuhaitzekoa dela kalkulatzen da.

ttiki.com/341182
(Frantsesez)

Gidaririk gabeko golf orgatxoak jendea garraiatzeko

Singapurreko parke batean golf orgatxo autonomoak ipini dituzte jendea batera eta bestera garraiatzeko. AEBetako MIT ikerketa zentroak bultzatutako saiakera horrek iraun duen bitartean ez da istripurik izan, alegia, orgatxoek ez dute pertsonarik edo animaliarik harrapatu eta ez dute ezerekin talkarik egin. Ibilgailu automatikoen bidean beste urrats bat.

ttiki.com/341183
(Gaztelaniaz)

Oliver Sacks neurologoa hil zen joan den abuztuaren 30ean

Oliver Sacks neurologoa (Londres, 1933) minbizi baten ondorioz hil zen abuztuaren 30ean. Sacksek gizatasunez jorratu zuen neurologia, eta dibulgazioan aritzeagatik da ezaguna. Hark idatzi zuenez, "gaixotasuna olerkari baten sentiberatasunaz aztertu behar da"

ttiki.com/341184
(Gaztelaniaz)

Babeslea: iametza Interaktiboa

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

ideia batetik errealitatera

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16